# elkarberri

## 63




# Fisioterapiako IV. Euskadi Sarien

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

**enero - marzo 2019 / Ejemplar gratuito**

2019ko urtarrila - martxoa / Doako alea

Depósito Legal: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

# próximos cursos
# datozen ikastaroak



**Programa Formativo de Actualización en Ejercicio Terapéutico en Fisioterapia**
otsailaren 15 - Online - 15 de febrero



**Tratamiento de Fisioterapia de las Disfunciones del Suelo Pelvico Post Parto**
otsailaren 16 - Bilbao - 16 de febrero



**Control Motor y Disfunción Lumbopélvica.**
**Integración de la Investigación con el Tratamiento. II Edición**
otsailaren 22 - Bilbao - 22 de febrero



**Fisioterapia en el Dolor de la Extremidad Superior: Codo, Muñeca y Mano**
martxoaren 1 - Bilbao - 1 de marzo



**Fisioterapia en Reanimación y Cuidados Intensivos. II Edición**
martxoaren 16 - Bilbao - 16 de marzo



**Ejercicio Terap[illegible]**
**Rehabilitación [illegible]**
martxoaren 22 - Bilbao - 22 de marzo



**Fisioterapia en Reanimación y Cuidados Intensivos. II Edición**
martxoaren 16 - Bilbao - 16 de marzo



**Fisioterapia en Salud Mental. Introducción Teórico - Práctica**
apirilaren 6 - Bilbao - 6 de abril



**Terapia Manual y Punción Seca en el Síndrome de Dolor Miofascial. Puntos Gatillo Miofasciales. II Edición**
apirilaren 12 - Bilbao - 12 de abril



**Fisioterapia en las Disfunciones Anorectales**
ekainaren 15 - Bilbao - 15 de junio

El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.

Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web colegial (www.cofpv.org)

EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharrizanak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko direla.

Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazak, webgunearen bidez egin beharrekoa (www.cofpv.eus)



**Roberto Romero**
Secretario del COFPV
*EFEO-ko idazkaria*

# editorial
# editoriala

## Plan de Protección de la Salud frente a las Pseudoterapias: una oportunidad para no desaprovechar

Recientemente, los Ministerios de Sanidad y Ciencia y Universidades, de manera conjunta, han hecho público un ambicioso proyecto que pretende, en palabras de la ministra Carcedo, "plantar cara a las Pseudoterapias dado que afectan negativamente a la Salud". Son varias las investigaciones que parecen evidenciar que las llamadas "pseudoterapias" favorecen el retraso o la sustitución de alternativas terapéuticas convencionales -de eficacia y seguridad probada- y/o reducen la efectividad de estos tratamientos si coinciden en el tiempo.

La activación del Plan, a corto plazo, afecta de una manera muy directa a nuestros centros: "Los establecimientos públicos o privados que incluyan pseudoterapias no podrán llamarse centros sanitarios".

Es cierto que, de la lectura del Plan, no parece desprenderse una política de intenciones firme e inequívoca de lucha contra el intrusismo. Diríase más bien que se trata de un "pulir y dar brillo" dirigido, una vez más y en exclusividad, hacia los centros sanitarios y a las Ciencias de la Salud, sustentado por discutibles intereses y esquivo con las "Enseñanzas no regladas" y con las titulaciones no oficiales.

Dejando a un lado el loable propósito de tan ambicioso proyecto normativo, triste sigue siendo que, en este país, resulte más difícil asumir las elevadas exigencias de la responsabilidad inherente a nuestro perfil académico y profesional que navegar con parche en el ojo y pata de palo, disfrazando mis torpes conocimientos con avispada palabra y escasos escrúpulos de curandero.

Por otro lado, la tibieza inicial del "Plan de lucha" no es óbice para estimar la oportunidad brindada y asumir la debida responsabilidad de catalizar un marco de estudio y autocrítica en el seno del colectivo. A nadie se le escapa la dificultad -cuando no imposibilidad- de encontrar máximos criterios de evidencia científica en todas y cada una de nuestras intervenciones, pero ello no puede ser menoscabo para incorporar criterios metodológicos en la práctica diaria y desechar vetustas pieles fundamentadas en el simple "uso y costumbre"; permitámonos abandonar lo que, a todas luces, no es sostenible desde el conocimiento científico.

Lo contrario, mantener estrategias de intervención con dudoso fundamento, supondría perder legitimidad para defender una identidad inequívoca como dignos merecedores de ser protagonistas de esta bella y apasionante Ciencia de la Salud.

## Sasiterapien aurrean osasuna babesteko plana: ez baztertzeko oduko aukera

Duela gutxi, Osasun, Zientzia eta Unibertsitateen Ministerioek proiektu handinahi bat argitaratu dute denen artean. Horren bidez, Carcedo ministroaren hitzetan, "osasunari kalte egiten dioten sasiterapiei aurre egin" nahi diete. Ikerketa askoren arabera, "sasiterapia" deiturikoen ondorioz atzeratu edo ordezkatu egiten dira alternatiba terapeutiko konbentzionalak, eraginkortasuna eta segurtasuna frogatua dutenak. Horrez gain, tratamendu konbentzionalen eraginkortasuna murrizten dute, aldi berean aplikatzen badira.

Plan hori aktibatzeak zuzenean eta epe motzera eragingo die gure zentroei: "sasiterapiak barne hartzen dituzten establezimendu publiko eta pribatuei ezingo zaie osasun-zentro deitu".

Egia esan behar bada, Plana irakurrita ez dirudi intrusismoari aurre egiteko asmo-politika irmo eta argirik ezarri denik. Beste behin ere "leundu eta distira" eman besterik ez du egiten, eta berriro ere osasun-zentro eta osasun-zientzietara bakarrik dago zuzenduta, oinarrian interes eztabaidagarriak izanik eta "irakaskuntza ez-arautuak" eta titulazio ez-ofizialak baztertuz.

Albo batera utzita araudi-proiektu handinahi honen xedea goresgarria dela, tristea da ikustea herrialde honetan zailagoa dela gure profil akademiko eta profesionalak berekin dakarren erantzukizunaren exijentzia-maila altua onartzea, begian adabakia eta egurrezko hanka jarrita ibiltzea baino, ganorarik gabeko ezagutzak hitz biziekin eta eskrupulu gutxirekin mozorrotuz, sasisendagileek egiten duten moduan.

Bestetik, "babes-plan" honen epeltasunak ez du oztopo izan behar eskaintzen digun aukera ikusteko, eta geure gain hartu behar dugu kolektiboaren barnean ikerketa eta autokritikarako esparru bat katalizatzeko erantzukizuna. Denok dakigu zaila dela –eta askotan ezinezkoa– ebidentzia zientifikorako goi-mailako irizpideak aurkitzea gure esku-hartze guzti-guztietan, baina hala ere irizpide metodologikoak erabili behar ditugu gure eguneroko jardunean, eta alde batera utzi behar ditugu soilik "ohiturak" oinarri dituzten joera zaharkituak. Bazter ditzagun ezagutza zientifikoak inola ere babesten ez dituen jokabide oro.

Kontrakoa egiten badugu, oinarri zalantzagarriak dituzten esku-hartzeko estrategiak erabiltzen baditugu, osasunaren zientzia eder eta liluragarri honen protagonista gisa dugun lekua defendatzeko legitimitatea gal dezakegu.

# sumario
# aurkibidea

**2** **cursos** ikastaroak
**3** **editorial** editoriala
**4** **noticias** berriak
**14** **articulo** artikuloa
**20** **asesoría jurídica** aholkularitza juridikoa
**22** **anuncios** iragarkiak
**26** **colegiados** elkargokide

**Presidencia y Dirección** Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya
**Coordinación** Koordinazioa:
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Realización y Maquetación** Gauzatzea eta Maketazioa
J&J Creativos
**Fotografía** Argazkigintza
ORO
**Edita** Argitalpena
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Publicación trimestral** Hiruhilabeteko argitalpena
2.950 ejemplares

**Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.**
**Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.**
Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.
Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

**Ejemplar gratuito para distribuir a los/as colegiados/as**
Elkargokieei emateko dohainezko alea



# Batzar Nagusia

## Gehiengoz onetsi dira 2019ko Aurrekontu Orokorrak

Joan den abenduaren 15ean, 2018ko azken batzarra egin zen elkargoaren egoitzan.

Aurreko batzarreko akta onetsi ondoren, batzorde bakoitzak 2018ko jarduera nagusien berri eman zuen, baita 2019rako aurreikusitako proposamen batzuen berri ere.

Lehenik eta behin, Iban Arrienek, EFEOko presidenteak, Gobernu Batzarrak “Fisioterapiaren egungo egoera Euskadin eta estatuan” deritzonaren laburpen xehatua eskaini zuen.

Hona hemen alderdirik aipagarrienak:

- Ministerioaren plan berria pseudizientzia deritzen horiek arautzeko.
- Fisioterapia eta arlo horretan lan egiten duten profesionalak Euskadiko Lehen Mailako Arretan sartzeko prozesua abiaraziko duten hasierako neurriak aktibatu eta garatzea.
- Kiroleko profesionalak arautzeko legea.

Presidenteak amaitutakoan, Edorta Ansoleagak, Gobernu Batzarreko III. kideak, hartu du hitza. Intrusismo Batzordean eta Aholkularitza Juridikoaren Batzordean egindako jardueren berri eman du, eta azpimarratu du Intrusismo Batzordeak herritarrak kontzientziatzeko hainbat kanpaina martxan jarri dituela, lanbideari duintasuna emateko eta fisioterapiaren arloko intrusismoari aurre egiteko. Bestalde, Aholkularitza Juridikoaren Batzordeak zaintza-, kontrol-, laguntza- eta informazio-lanak egiten jarraituko du.

Edortaren ondoren, Andrea Scolarik, Gobernu Batzordeko I. kideak, hartu du hitza. 2019ko Komunikazio Plan Estrategikoa aurkeztu du, eta alderdi hauek nabarmendu ditu:

- 2019an herritarrak sentsibilizatzeko “12 hilabete, 12 osasun-aholku” kanpainarekin jarraitzea; horretarako, fisioterapiaren onurak azaltzen dituzten bideo bidezko aholkuak zabalduko dira.
- Fisioterapiaren Mundu Egunaren formatua aldatzea, gizarteko kide gehiagorengana iristeko.

Jarraian, Leyre Peñak, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko arduradunak, 2018an egindako ikastaroen laburpena eskaini zuen, eta 2019rako aurreikusitako prestakuntza-proiektuen berri eman zuen. Hauek nabarmendu daitezke:

- Fisioterapia-tratamenduak erditu ondorengo pelbis-zoruko arazoak tratatzeko.
- Kontrol motorra eta gerrialde eta pelbiseko arazoak. Ikerketa eta tratamendua integratzea. II. edizioa.
- Ukondo, eskumutur eta eskuko mina. Diagnostiko diferentziala, kudeaketa multimodala eta manipulazio-tratamendua.
- Fisioterapia suspertzeetan eta

zaintza intentsiboetan. II. edizioa.

- Ariketa terapeutikoa bihotzeko gaitzen errehabilitazio-tratamenduetan.
- Lepoko minaren eta zefalearen tratamendu klinikoa.
- Fisioterapia buruko osasunaren arloan.
- Eskuzko terapia eta ziztada lehorra min miofaszialaren sindromea tratatzeko: kako-puntu miofaszialak
- Eskuzko drainatze linfatikoa. Vodder metodoa.
- Tratamendu miofaszialaren hastapenak. 1. maila




- Erditu aurreko eta ondoko prestaketa Pilates metodoa erabiliz.
- Fisioterapia uzki-ondesteetako arazoak konpontzeko.

Prestakuntza Batzordeak esan behar zuena esan ondoren, EFEOko idazkari Roberto Romerok Pazienteen Segurtasunerako Elkargoko Batzorde sortu berria aurkeztu du; batzorde horrek maiatzaren 17ko 78/2016 Dekretuak ezarritakoari erantzutea du xede.

Dekretuan jasotakoari jarraikiz, Batzordeak eduki espezifikoak diseinatu eta ezarri ditu Euskadiko zentro guztiek pazienteen segurtasunaren arloko plan espezifiko eta pertsonalizatu bat izateko nahitaezko betebeharra betetze aldera.

Roberto Romerok gogorarazi du dokumentazioa elkargoaren webgunean dagoela eskuragarri.

Diruzaintzakoei hitza eman aurretik, Roberto Romerok esan du bi batzorde berri hauek martxan jarriko direla: Mendetasuna, Desgaitasuna eta Gizarte Zerbitzuak, eta Kirola, Kirol Egokitua eta Inklusiboa.

Idazkariaren hitzen ondoren, EFEOko diruzain Edurne Anduezak hartu du hitza. Elkargoaren kontuen laburpena aurkeztu du, eta 2019ko Aurrekontu Orokorrak aurkeztu ditu; aurrekontuak gehiengoz onartu dira, eta hauek dira alderdirik esanguratsuenak:

- 2018-2022 Plan Estrategikoan jasotako kanpainak, proiektuak eta politikak mantentzea.
- Ezagutza Plataforma izenekoa mantentzearen aldeko apustua mantentzea. Ezagutzen plataforma digital bat da, kolektibo osoak hamarnaka liburu tekniko eta garrantzi handiko hamar aldizkari digital modu aske eta mugagabean atzitu ahal izan ditzan.
- Gure elkargokideen parte-hartzea duten lankidetza-proiektuak edota elkartasun-proiektuak diruz laguntzeko partida mantentzea.
- Nahikoa aurrekontu bideratzea Elkargoko bi batzorde berriek egin behar dituzten jarduerak eta proiektuak finantzatzeko.

Bukatzeko, 2019ko elkargoko kuotak eta matrikula onetsi dira.

Biltzarra amaitzeko, eta eskaera eta galderen atalean, zenbait kontsulta egin dira, eta EFEOko ordezkariek hitzeman zuten kontsultatuko dutela eta konpontzen saiatuko direla.

Azkenik, EFEOk eskerrak eman nahi dizkie biltzarrera joan ziren guztiei. Eta, bide batez, elkargoaren proposamenetan modu aktiboan parte hartzera animatzen zaituztegu.

*Consejo de Redacción*

29 JORNADAS DE FISIOTERAPIA
1 y 2 de MARZO de 2019
EJERCICIO TERAPÉUTICO

ESCUELA UNIVERSITARIA DE FISIOTERAPIA DE LA ONCE
Universidad Autónoma de Madrid
Tel.: 91 589 45 00 • www.once.es/euf
escuelauniversitariafisioterapiaonce
ONCE
grupo social ONCE

# Fisioterapiako IV. Euskadi Sarien banaketa

Joan den abenduaren 15ean, Fisioterapiako IV. Euskadi Sariak banatu ziren EFEOren egoitzan.

Esan beharra dago adituez osatutako epaimahai batek aukeratu zituela sarituak, eta, aurkeztutako lanak maila handikoak izan zirenez, hautaketa ez zela batere erraza izan.

2015ean sortutako ekimen horren helburu nagusia fisioterapiaren esparruan egunero egiten den lana ezagutaraztea da, ez soilik pazienteekiko harremanei dagokienez, baizik eta fisioterapeuta profesionalek ikertzen eta osasuna sustatzen ematen duten denborari ere. Oro har, helburua pertsonen bizi- eta osasun-kalitatea hobetzea da.

Aurreko urteetan bezala, hauek izan dira fisioterapiaren barruan sailkatu diren kategoriak:

- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen onena
- Fisioterapeuta onena
- Ikerketa-saria
- Fisioterapiako ibilbide profesional onena
- Gradu amaierako lan onena, aurten hutsik gelditu dena.

Lehenik eta behin, Iban Arrienek, EFEOren presidenteak, sarien aurtengo edizioa aurkeztu zuen, sariek fisioterapiaren eta lanbidea osatzen duten profesionalen garrantzia agerian jartzeko duten garrantzia azpimarratuz.

## Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen onenaren saria



Fisioterapeuta profesionalek egiten duten lana ezagutaraztea funtsezkoa da herritarrak kontzientziatzeko eta osasun-profesional moduan egiten dituzten ekarpenak ulertzeko, pertsonen osasunaren eta ongizatearen alde.

Hori dela eta, sari honek aintzat hartzen du hedabideek gure informazio- eta sentsibilizazio-helburuak transmititzeko egiten duten ekarpena.

2018ko edizioan, Libe Agirre irrati-kazetariak irabazi zuen saria, Bizkaia Irratiko Lau Haizeetara programan gure lanbideari lotutako kontuak jorratzeagatik.

## Fisioterapeuta onenaren saria

Sari honek urtean zehar eredu edo erreferentzia izan diren fisioterapeutak saritzen ditu, eta azken edizioan Juan Mº Morales Aizpúnek irabazi zuen. Morales doktorea da fisioterapian, eta beti prest dago ikasten jarraitzeko; Bartzelonako Nazioarteko Fisioterapia Kongresuan bere doktore-tesia aurkeztu zuen poster-formatuan.



## Ikerketa-saria



Ikerketa oinarrizko zutabeetako bat da fisioterapia osasun-diziplina moduan garatu eta finkatzeko.

Aurtengo edizioan, Saio Echelecu Esteiro eta Eder Bikandi Latxagak irabazi dute saria (1000 euro eta 500 euroko ikerketa-beka), “CORE STABILITY EN FÚTBOL PROFESIONAL: Desde la validación de dos test de fuerza de la región central (core) hasta su entrenamiento” lanagatik.

## Fisioterapiako ibilbide profesional onenaren saria

Amaitzeko, sari hau banatu zen, bizitza fisioterapiaren alde eman duen pertsona bat saritzeko.

Irabazlea Madrilera joan zen 60ko hamarkada erdialdean, eta Osasun Laguntzaile Teknikoaren titulua eskuratu zuen. Ondoren, Basurtoko Ospitalera joan zen funtzio hori betetzera.

Gizakion gorputzari lotutako misterioak ikertzen jarraitu nahi zuenez, 1976an fisioterapian espezializatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean.




Hurrengo urteetan ere ikasten jarraitu nahi zuen, eta fisioterapiaren esparruan hainbat tratamendu espezifiko garatu zituen.

Bere semearentzako (fisioterapeuta bera ere) eredua izan da, eta egunero egiten ditu ahaleginak gizarteak fisioterapia osasun-diziplina moduan aintzatesteko.

Aurreko guztiagatik, epaimahaiak saria Fernando Maza Diegori ematea erabaki zuen.

Saritu guztiek esker onak eman zituzten, eta fisioterapeuta moduan lan egiten jarraitzeko animatu gintuzten.

Fisioterapeuten Elkargo Ofizialetik ere lan egiten jarraitzera animatu nahi zaituztegu. Guk Fisioterapiaren Euskadi Sariak eta antzerako ekimenak sustatzen jarraituko dugu, eta zuen hautagaitzak jasotzea espero dugu 2019ko ediziorako.

***Idazketa Kontseilua***



# Euskadiko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin lankidetza-hitzarmena sinatzea

Arreta Goiztiarreko Liburu Zurian (GAT, 2000) ematen den definizioaren arabera, hau da arreta goiztiarra: "0-6 urte arteko haurrei, familiei eta ingurukoei zuzentzen zaizkien esku-hartzeen multzoa, garatzeko arazoak dituzten edo horretarako arriskua duten haurren behin-behineko edo behin betiko beharrizanei ahalik eta azkarren erantzute aldera. Esku-hartze horietan, haurraren osotasuna hartu behar da kontuan, eta diziplina arteko nahiz zeharkako diziplinetako profesionalen talde batek planifikatu behar ditu. Definizio horretatik eratortzen da adin tarte horretan dauden eta garapenenean arazo edo gabeziaren bat duten edo horrelakoren bat izateko arriskuan dauden haurrei zuzenduriko arreta eta esku-hartze global eta diziplina arteko bat garatzeko beharra, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legearekin (abenduaren 14ko 39/2006) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko Dekretuarekin (otsailaren 2ko 13/2016) bat.

Horri dagokionez, beste hainbat kudeaketa-lanekin batera, EFEOko Gobernu Batzarrak interes handiz aztertzen dugu Euskal Herriko Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearekin (APATPV-EHAGPE) lankidetzan aritzeko aukera. Irabazi asmorik gabeko elkarte horren helburu nagusia da beharrezko ekintzak gauzatzea garatzeko arazoak dituzten edo izan ditzaketen haurrek beharrezko prebentzio- eta laguntza-arreta guztia jaso dezatela bermatzea, ahalik eta hobekien gara daitezen eta ahalik eta ongizate-mailarik altuena izan dezaten.

Elkarte horretako Zuzendaritzako kideekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, joan den abenduaren 3an hitzarmen bat sinatu genuen elkargoaren egoitzan. Hitzarmen horren bidez, bi alderdiek hitzematen dute ikusgarritasuna emateko, informatzeko eta ezagutarazteko ekintzak gauzatuko dituztela elkarrekin, Arreta Goiztiarraren arloan, lehen haurtzaroko garapenari buruzko ikerketak eta azterlanak sustatu, lankidetzan gauzatu eta garatuko dituztela, eta tokiko, lurraldeko, erkidegoko eta estatuko mailan Arreta Goiztiarrari buruzko dokumentuak prestatuko dituztela.

Espero dugu hitzarmen honetatik abiatuta hamaika ekintza egin ahal izatea elkarrekin, Euskadin Arreta Goiztiarra garatu eta susta dezagun, baita fisioterapeutek gizartean eta osasunean eragin handia duen funtsezko arlo horretan egiten duten lanari balioa eman diezaogun ere.

***Idazketa Kontseilua***




Íñigo Bermejo -EHAGPEko presidentea-, Iban Arrien -EFEOko presidentea- eta Eva Rodríguez -EHAGPEko Batzarreko kidea-

# EFEO eta EKE Kontsumobideko arduradunekin elkartu dira

Etengabe ikusten ditugu araudiari inolako kasurik egin gabe osasungintzaren arloari loturiko tailerrak eta ikastaroak modu irekian eskaintzen dituzten kartelak eta publizitate-mezuak. Hala, gure eraikin, autobus-aterpe eta erakusleihoak masaje, osteopatia, drainatze linfatiko, fisioterapia-laguntzaile, kiropraxia eta beste hainbat formakuntza oso eta etorkizunez betetakoak hitzematen dituzten kartelez beterik ditugu.

Marketin kanpaina oldarkorrak erabiltzen dituzte (batzuetan publizitate engainagarria ere erabiltzen dute), eta "proiektu profesional bermatuak" aipatzen dituzte matrikulatuta eta zenbait ikasketa gauzatuta, nahiz eta ikasketa horiek ez dauden inolaz ere gaituta osasungintzan aritzeko. Gainera, kontsumitzaileek ez dituzte ezagutzen eman zaien tituluaren benetako mugak eta gaikuntza. Horra hor eska daitekeen informazio xehatuaren faltak eta kontsumitzaileek era horretako produktuak eskuratzeko moduak ez kontrolatzeak dakartzan ondorio larrietako batzuk.

Azken urteotan, EFEOk hainbat ekintza egin ditu ildo horretatik, gure ustez diziplina honek denbora luzean pairatu duen intrusismo profesionalaren jatorria den horri kontra egiteko. Oraingo honetan, Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioarekin batera, publizitate-kanpaina indartsua jarri genuen martxan: prentsa-ohar bateratu bat argitaratu genuen (hainbat hedabidetan atera zen: irratian, prentsan, telebistan...), informatzeko kartelak atera genituen eta KONTSUMOBIDEk esku hartzea lortu genuen.

Kontsumobideko Zuzendaritzak azkar erantzun zuen, eta joan den azaroaren 22an zuzendari nagusi Nora Abete andrearekin hitz egin ahal izan genuen.

Eskaera formal eta bateratu hau helarazi genion: araudi-elementuak eta bete beharreko informazio-politikak diseinatu eta martxan jar daitezela eta beharrezko kontrol-neurriak har daitezela, urteek aurrera egin arren gure iritziz eska daitezkeen eta Zerbitzuen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Araudi Orokorrean jasotzen diren bermeekin egiten ez diren prestakuntza-produktu horiek kontratatzea galarazteko.



Jon Ariño -EKEko presidentea-, Roberto Romero -EFEOko idazkaria-, Nora Abete -Kontsumobideko zuzendari nagusia- eta Fernando Valdés -Kontsumobideko aholkulari juridikoa-

Mezua oso argia zen: Irakasteko Askatasunak (Konstituzio Zuzenbidea) ahalbidetzen du prestakuntza-eskaintza zabal hori; alabaina, bi kolektiboetako kideok (fisioterapiako profesionalak eta kontsumitzaileak) azken urteotan ikusi dugu ez dagoela produktu horiek kontrolatzeko politika zorrotzik ez eta informatzeko betebeharrik ere; hori dela eta, zerbitzu horiek kontratatzen dituzten pertsonak babesgabe gelditzen dira, sinetsita osasungintzako konpetentziak eskuratuko dituztela, hala ez denean. Hori, gainera, osasungintzako intrusismo profesionalarekin ere lot daiteke. Onerako edo txarrerako, Irakasteko Askatasun horrek era horretako prestakuntza-zentro eta irakaskuntza-akademia ez arautuetan eskaintzen diren ikasketei zalantzan jarri ezin den zilegitasuna ematen die. Hala ere, hori ezin da oztopo izan gardentasun- eta benetakotasun-irizpideak betetzen dituen informazio xehatua bermatzeko mekanismoak artikulatzeko, zerbitzuen erabiltzaileek konfiantza-abusuak jasaten ez dituztela ziurtatze aldera.

Gure aldetik, era horretako produktuen publizitatea eta kontratazioa kontrolatzeko neurriak zaintzeko konpromisoari eutsiko diogu, benetakotasun- eta gardentasun-irizpideekin bat, kontsumitzaileei iruzur egin ez diezaieten eta gure eskumenak zanpa ez ditzaten.

Gure eskerrik beroenak Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteari eta elkarteko presidente Jon Ariñori, eskainitako laguntzagatik eta jarrera ezin hobeagatik.

***Idazketa Kontseilua***

# Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko Fisioterapiari buruzko II. Jardunaldi Nazionala

IJoan den azaroaren 17an, fisioterapia eta fisioterapiako profesionalak Osakidetzako Lehen Mailako Arretaren esparruan txertatzeko azterketa-, sustapen- eta bultzada-estrategiaren barruan, EFEOko idazkari eta zuzendari tekniko Roberto Romerok Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko Fisioterapiari buruzko II. Jardunaldi Nazionalean parte hartu zuen Aragoiko hiriburuko Miguel Servet ospitalean. Jardunaldia Aragoiko Fisioterapeuten Elkargo Profesionalak antolatu zuen, Espainiako Fisioterapeuten Elkarteko Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko lantaldeko kideen laguntzarekin.

Laurogei profesional inguruk hartu zuten parte jardunaldi interesgarri horretan; bertan, askotariko esperientziak azaldu eta partekatu zituzten, eta Lehen Mailako Arretan fisioterapiako profesionalak txertatzeari buruzko hainbat ikerketaren emaitzak azaldu zituzten. Jardunaldian partekatutako datuek erakusten dutenez, guk urte askoan defendatu dugun eran, ulertezina da orain arte kolektibo hori euskal osasun sarean egon ez izana; gainera, fisioterapiako profesionalek rol garrantzitsua izan duten osasungintzan beste eskualde batzuetan.

Pilar Venturak, Aragoiko Osasun Kontseilariak, ireki zuen saioa, eta esan zuen ezinbestekoa dela fisioterapeuten kolektiboa integratzeko politika bat; kolektibo horrek protagonismoa izan behar du programa komunitarioetan, eta “Lehen Mailako Arretako gainerako profesionalekin lankidetzan aritu behar dute osasunaren arloko aktiboak hedatzeko”.

Modu markatuan azpimarratu zuen “biztanleria zahartzen ari dela eta desgaitasunak gero eta ohikoagoak direla; horregatik, prebentzio-neurria ezarri behar dira, herritarren bizi-kalitatea hobetze aldera”. Gaineratu zuen fisioterapeuten kolektiboa eta egiten duten lana funtsezkoa dela helburu hori erdiesteko. Zerbitzu publikoaren iraunkortasuna bermatuta eska daitekeen zerbait da hori, eta halaxe esan zuen, halaber, Fisioterapeuten Elkargoetako Kontseilu Nagusiko presidente Miguel Villafaina, hura ere jardunaldietan izan baitzen.

Besteak beste gai hauek landu ziren jardunaldian: fisioterapiak Lehen Mailako Arretan duen garrantzia BGBK duten pazienteak tratatzeko, min kronikoa tratatzeko izan beharko genukeen protagonismoa, osasun komunitarioko ereduak parke bio-osasungarrietan, eta mugikortasun arazoak nahiz erortzeko arriskua duten adineko pertsonekin esku hartzeko aukerak. Esku hartzeko eredu horiek oraindik ez ditugu aztertu Euskadin, zoritxarrez, baina oso onuragarria litzateke aukera horiek aztertzen jarraitzea.

***Idazketa Kontseilua***




Elkargo profesionaletako hainbat ordezkari (Euskadi, Katalunia, Madril, Nafarroa, Aragoi, Gaztela eta Leon)

La fisioterapia es un trabajo de equipo

## Tus pacientes, tú y ATM, tu proveedor de confianza

# atm.

## Zure fisioterapia denda

**Encuentra en ATM todas las herramientas que te ayudarán a devolver la función y movilidad de tus pacientes**

Gozatu ezazu gertuko talde baten aholkuaz, konfiantzazkoa eta hemengoa, beti fisioterapia merkatuko azken berriak eta zure beharrak kontutan hartzen dituen taldea



Visita nuestra exposición en:

**Parque Empresarial Zuatzu, 3**
**Edificio Urgull, local 4**
**Donostia**



atm. movimiento en equipo

www.atmfisio.com

ventas@atmfisio.com | 943 358 270

# Kirola, Kirol Egokitua eta Inklusiboa Batzorde berriaren lehen esku-hartzeak

Joan den irailean eratu zen Kirola, Kirol Egokitua eta Inklusiboa Batzordea, EFEOren 2018-2022 aldiko Plan Estrategikoaren barruan. Hauek osatzen dute: Edorta Ansoleaga Unibaso eta Andrea Marina Scolari Tártara; azken hori da batzordeko arduraduna.

Batzorde berriaren asmo nagusia da kirolaren arloan fisioterapeuton interesak defendatzea. Horretarako, helburu hauek ezarri ditugu:

- Ariketa terapeutikoaren arloan ditugun eskumenak zehaztu, sustatu eta eskatzea.
- Osasungintzan, kirolean eta hezkuntzan fisioterapeuten presentzia indartzea.
- Ekintza bateratuak sustatzea eta etengabe harremanetan egotea gure eskumenen defentsan inplikatuta dauden eragileekin.

Ekintzek hitzek baino gehiago balio dutela jakinik, lanari ekin diogu eta, horregatik, 2018 amaieran gonbidatu gisa bertaratu ginen bi ekitaldi hauetara:

Azaroaren 22tik 24ra, SEFIPen (Pediatriako Espainiako Fisioterapia Sozietatea) VII. Kongresuan izan ginen. Kongresuaren izenburua “Jarduera eta parte-hartzea desgaitasunen bat duten haur eta gazteen kasuan” izan zen, eta Madrileko Unibertsitate Autonomoan eta Valdelasfuenteseko Kirol Medikuntzako Zerbitzuan egin zen. Ekitaldi horretan 150 pertsona baino gehiago elkartu ginen, eta hitzaldiak, komunikazio libreak, mahai-inguruak, posterren erakusketak eta tailerrak izan zituen. Horietan guztietan, desgaitasunen bat duten haurrei zuzenduriko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan estatu mailan egiten ari diren hainbat ekimen ezagutu genituen, baita fisioterapiak ekimen horietan zer rol duen ere.

Hona hemen ezagutu genituen zenbait esperientzia aberasgarri.

Pablo Gasque Celma doktorea aditua da Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren Medikuntzan, Alcobendaseko Udaleko Kirolaren Medikuntzako Zerbitzuan, eta gai hau aurkeztu zuen: “Ariketa fisikoa – osasuna binomioa aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeetan”. Aurkezpen horretan, Valdelasfuentes Kirol Hirian osasungintzako eta kiroleko profesionalek elkarrekin modu koordinatuan egiten duten lana azaldu zuen.

Bestalde, Patricia Felguera fisioterapeutak eta Raúl López Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziadunak tailer praktiko bat eskaini zuten igerilekuan: jarduera fisiko egokitu saioak jasotzen zituen neska baten kasua azaldu zuten. Bi profesionalek azpimarratu zuten bi diziplinak osagarriak direla helburuak ezartzeko eta esku-hartzeak programatzeko.

Kirola, Kirol Egokitua eta Inklusiboa Batzordearen helburuetako bat da fisioterapeuten figura gure autonomia-erkidegoko kirol-programa eta -jardueretan txertatzen duten lan-ereduak sustatzea.

Javier Pérez Tejero Heziketa Fisikoaren Zientzietan doktorea eta Sanitas Fundazioaren Kirol Inklusiboaren Ikasketa Katedrako (CEDI) zuzendaria da, eta hitzaldi bat eskaini zuen “Kirol inklusiboa: erronkak eta aukerak diziplina anitzeko ikuspegi batetik” izenburupean.

Une honetan Madrilgo Erkidegoan egiten ari diren kirol inklusiboaren arloko programak azaldu zituen. Katedra horrek “Kirol inklusiboa eskolan” programa gauzatzen du, eta programa hori tailer honetan ezagutzeko aukera izan genuen: “Heziketa Fisikoko irakaslea eta fisioterapeuta, desgaitasunak dituzten ikasleak Heziketa Fisikoko saioetan integratzeko lanean”. Tailerra Begoña Chimentik irakatsi zuen; Salvador Dalí institutuko fisioterapeuta da (mugikortasunari loturiko desgaitasunen bat duten ikasleek ikastetxe hori aukeratu ohi dute), eta alboan izan zuen Carmen Ocete Calvo, Jarduera Fisikoren eta Kirolaren Zientzietan doktore eta CEDIko kidea.

Programaren helburua da eskolan metodologia inklusiboa erabilita hainbat kirol egokitu eta paralinpiko ezagutzera eman eta horien praktika sustatzea.





Larunbatean, masterclass-a igerilekuan, kongresura bertaratu diren pertsona guztientzat, ekimenari itxiera eman eta elkar agurtzeko.

Batzordeko kideok gure burua eskaini dugu Katedrak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko eta Eskolako Kirol Inklusiborako Gidak egiten laguntzeko; gida horietan, jarduerak desgaitasunen bat duten ikasleei nola egokitu azaltzen da.

Gure kide Kattalin Sarasola Gandariasbeitia fisioterapeutak mahai-inguru batean parte hartu zuen, eta dantza egokituaren, dantza egokituaren bidezko esku-hartze terapeutikoaren, eta zailtasun edo nahasmendu neurologikoak dituzten haurrei zuzenduriko eta talde-dinamikan oinarritutako (senideekin, neba-arrebekin edo beste haur batzuekin) balletaren arloan izan duen esperientziaren berri eman zuen. Bere esperientzietan, diziplina anitzetatik abiatuta egiten du lan, logopediako eta neuropediatriako profesionalekin elkarlanean.

Posterren atalean, EFEOko kideek Arreta Goiztiarraren arloko lan zientifikoa aurkeztu zuten. Hemendik, egindako lana aitortzen diegu eta ikerketarekiko duten interesa eta konpromisoa eskertzen diegu.

Hiru egun benetan aberasgarri izan ziren, eta behin eta berriro azpimarratu zen zeinen garrantzitsua den osasungintzako profesionalek eta kiroleko profesionalek modu koordinatuan lan egitea desgaitasunen bat duten haurrei zuzenduriko kirol-programetan; hala, argi gelditu zen diziplinartekotasuna benetakoa dela, eta ez soilik utopia hutsa.

Abenduaren 1ean eta 2an, Madrilgo San Carlos ospitale klinikoan Fisioterapiaren eta Kirolaren Nazioarteko Kongresua egin zen; Batzorde Zientifikoko hainbat kide bertaratu ginen hara, EFEOko ordezkari gisa.

Organo horretako kide gisa, Antolakuntza Batzordeak hautatutako laburpenak eta posterrak ebaluatzeko eskatu ziguten, komunikazio zientifikorik onenak aukeratzeko; kongresuaren amaieran, saria eman zitzaien.




Kongresuak 9 arlo tematiko izan zituen (kirol-egokitzea, tratamendu integral miofasziala, zaina, fisioterapia inbaditzailea, esplorazioa eta balorazio funtzionala, belauna eta aldaka, eliteko kirolarien oneratzea, kirol-medikuntza eta orkatila), baita maila goreneko espezialistek eskainitako 9 tailer ere.

Kasu honetan, gure elkargoko kideei batzorde berria ere aurkeztu genien, eta gaiari loturiko edozein zalantza izanez gero gugana jotzera animatu genituen.

Elkargoetako beste ordezkari batzuei dagokienez, ikuspuntuak trukatu genituen Madrilgo Erkidegoko Fisioterapeuten Elkargo Profesionaleko dekano Aurora Araujo Narváezekin eta Espainiako Fisioterapeuten Elkarteko (AEF) Jarduera Fisikoa eta Kirola azpitaldeko presidente Miguel Moreno Martínezekin. Biei jakinarazi genien lankidetzan aritzeko nahi sendoa dugula, kirolari loturiko lanbideei eragiten dieten araudi berrietan gure eskumen profesionalak defendatze aldera.

Batzordean egiten ditugun hurrengo ekintzen berri emango dizuegu, eta edozein zalantza, kezka edo iradokizun izanez gero, jar zaitezte Elkargoarekin harremanetan.

***Idazketa Kontseilua***

# Terapia akuatikoa fisioterapiaren ikuspuntutik

Alicia Sánchez Hernández - 2976. elkargo-kidea COFPV
Haizea Urrutxurtu Cea - 2746. elkargo-kidea COFPV

**Hidrozinesiterapia**: "ariketa aerobikoak eta hidroterapiak sortzen dituzten ondorio terapeutikoak erabiltzen ditu. Uretako terapiak mugimenduak errazten ditu; izan ere, grabitatearen indarra murrizten du urak. Gainera, igeri egoteari, presio hidrostatikoari eta uraren tenperaturari esker, terapia hori egokia da min kronikoa eta giharren hantura edota espasmoak dituzten pazienteak tratatzeko, pazienteen gihar eta hezurren gaitasun funtzionala kaltetuta daudenean1".

**Uretako terapia** eremu berria da, baina etorkizun distiratsua izango du, zalantzarik gabe, hainbat lesio fisiko nahiz neurologiko tratatzeko onuragarria dela frogatu delako eta hala izaten jarraituko duelako. Uraren propietate fisiko eta kimikoei esker, elementu hori oso garrantzitsua izan da agente terapeutiko gisa gizadiaren historia osoan zehar. Mendeetan zehar balio desberdina eman bazaio ere, patologia ugari tratatzeko tratamendurik eraginkorrenetako bat dela frogatu da, batez ere errehabilitazioari dagokionean.

Terapia akuatikoak lau printzipio nagusi ditu, pazientea oneratu ahal izateko[1,3] hauek dira:

- **Igeri egotea:** urak presioa egiten du grabitate-indarraren aurkako noranzkoan; horri esker, giltzadurek mugimendu gehiago egin ditzakete min gutxiago eraginda.
- **Indarraren aurkako erresistentzia**: edozein norabidetan egiten den indarrak erresistentzia aurkitzen du, lehorrean gertatzen ez den bezala; izan ere, grabitateak noranzko bakarrean jartzen du erresistentzia, eta gihar agonistaren garapenak antagonistaren lesioa eragin dezake.
- **Presio hidrostatikoa**: presio hidrostatikoa onuragarria da odola gorputz adarretan zehar mugitzeko; horri esker, oinen eta orkatilen hantura murritu daiteke.
- **Tenperatura egokia**: tenperatura egokiari esker, kaltetutako gihar taldea erlaxatu egin daiteke eta, ondorioz, giltzaduren zurruntasuna murrizten da. Horrek min gutxiago sentitzea eta mugimendu gehiago egin ahal izatea ahalbidetzen du.

## Uretako ariketa




(Koury, 1998)

**Kontraindikazioak:**

- Infekzio-prozesuak edo sukarra duten pazienteak.
- Gaixotasun infekziosoak edo kutsakorrak, eta kutsa daitezkeen azaleko gaitzak.
- Zauri irekiak edota orbaintze-prozesuan daudenak.
- Erreuma prozesuen fase akutuak eta gaixotasun neuromuskular degeneratiboen agerraldiak, hala nola esklerosi anizkoitza.
- Bihotz eta biriketako arazo larri edo ezegonkorrak, ariketa fisikoaren edo inguruneko baldintzen eraginez okerrera egin badezakete.
- Giltzurrun-gutxiegitasuna.
- Hipotentsio edo hipertentsio larria edo kontrolatu gabea.
- Termoerregulazioaren nahasmendu larria[3].

Gure helburu nagusietako bat izan behar da **lesioaren fase akutuan tratamendu fisioterapiko egokia jasotzeak duen garrantzia azpimarratzea**.

**Hainbat autorek aipatu dituzte terapia akuatikoaren onurak:**

- Profesionalek ariketa fisikoa

uretan egitea susta dezatela proposatzen dute, osasuna hobetzeko bitarteko gisa4.

- Ur-ingurunean lan egiteak giharrak modu organikoan garatzea eta koordinazio eragilea lantzea ahalbidetzen du, gorputza grabitaterik gabeko egoeran dagoenean[1,5,6].
- Uretako jarduerak baliagarriak dira hainbat patologia eta ezintasun sendatu eta gorputza berriz hezteko[7,8].

## Uraren propietateak eta terapia akuatikoa erabiltzea

Terapia akuatikoa prozedura terapeutiko bat da eta, bertan, modu konbinatuan erabiltzen dira uraren propietate mekanikoak eta tratamenduaren teknika eta esku-hartze espezifikoak, **jarritako helburu terapeutikoak gauzatzea eta erdiestea errazte aldera**.

